MP/ig

FA-IOH-037/19
08-OH

# FORU AGINDUA - ORDEN FORAL

Donostia, 2019ko maiatzaren 16a
San Sebastián, a 16 de mayo de 2019

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako jarduketa lerroen artean azpiegitura hidraulikoetan egindako inbertsioa aurkitzen da, eta, zehazki, saneamenduarekin eta arazketarekin lotutako soluzioak garatzeko bideratu direnetan egindako inbertsioa.

Nahiz eta badiren urte batzuk Zumarragako saneamenduko oinarrizko azpiegiturak martxan jarri zirela, zonalde batzuek, oraindik, ur zikinak natura ingurunera isurtzen jarraitzen dute, aurre arazketarik egin gabe. Hori da Eizaga auzoaren kasua, Zumarragako hirugunean. Hori dela eta, erabaki da proiektua bat idaztea, Eizagako saneamenduaren konponbide bat definitzen duena. Jarduketa hau Gipuzkoako Uren Kontsortzioak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an sinatutako azpiegiturak finantzatzeko Hitzarmenean sartuta dago.

Egun, Eizaga Gaineko zati bateko etxeen isuriak zonaldeko euri urekin nahasten dira, eta Santa Lutzi errekastora isurtzen dira. Proiektu honen bidez proposatzen da saneamendu sare bereizgarri bat gauzatzea, egungo sare bateratua bikoizteko asmoz. Horrela, euri uren sare bat lortuko da, batetik, eta ur zikinen beste sare bat, bestetik. Euri urak Santa Lutzi errekastora isurtzen jarraituko dira, eta ur zikinak ponpatze putzu batera joango dira, zeinak bultzatuko baititu Antio Hiribidetik jaisten den kolektorearekin konektatu arte. Saneamendu kolektoreen bidez, Eizaga gaineko ur zikinak aztatuak izango dira azkenik Zuringoaingo Hondakin Uren Araztegian.

Ponpatzeko putzua espaloian jarriko da, San Gregorio kaleko 31. eta 33. putuen artean dauden garajeen sarreran. Puntu horretan egingo dira lan nagusiak sareak bereizteko. Orobat aurreikusten da San Gregorio kaleko 20 zenbakiaren aurrean ur zikinak bereiztea, errepide nagusira ematen duen aldean. Bestalde, inpultsio hodia San Gregorio kaleko eskaileretatik joango da, ponpatzeko putzuaren eta Antio hiribidean behar doan kolektorearen lotura arketaren artean. Lotura arketa hori San Gregorio

Entre las líneas de actuación impulsadas por la Diputación Foral de Gipuzkoa, se encuentra la inversión en infraestructuras hidráulicas y, en concreto, en aquellas encaminadas al desarrollo de soluciones de saneamiento y depuración.

Aunque la infraestructura básica de saneamiento de Zumárraga lleva varios años en marcha, sin embargo, a fecha de hoy existen algunas zonas cuyas aguas residuales aún siguen vertiéndose directamente al medio natural sin depuración previa. Este es el caso del barrio de Eizaga, en el casco urbano de Zumárraga. Por este motivo se ha decidido acometer la redacción de un proyecto que defina una solución de saneamiento en Eizaga. Esta actuación está incluida en el Convenio de financiación de infraestructuras suscrito en 2018 entre el Consorcio de Aguas de Gipuzkoa y la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En la actualidad, los vertidos de las casas de una parte del Alto de Eizaga se mezclan con las aguas pluviales de la zona y se vierten hacia la regata Santa Lutzi. Mediante el presente proyecto se propone materializar una red de saneamiento separativa con el objetivo de desdoblar la actual red unitaria. Así se conseguirá tener una red de aguas pluviales, por un lado, y una red de aguas fecales, por otro. Las aguas pluviales seguirán vertiéndose hacia la regata Santa Lutzi, y las aguas fecales se concentrarán en un pozo de bombeo que las impulsará hasta conectar con el colector que baja por Antio Hiribidea. A través de los colectores de saneamiento, las aguas fecales del Alto de Eizaga finalmente serán depuradas en la Estación Depuradora de Aguas Residuales de Zuringoain.

Está previsto ubicar el pozo de bombeo en la acera, en un punto situado junto a la entrada de los garajes entre San Gregorio Kalea 31 y 33. En este mismo punto es donde se van a realizar las principales actuaciones necesarias para separar las redes. También se contempla una separación de fecales junto San Gregorio Kalea 20, en el lado que da a la carretera general. Por otro lado, la tubería de impulsión discurrirá por las escaleras de San Gregorio Kalea, entre el pozo de bombeo y la arqueta

kaleko 29. zenbakiaren atariaren aurrean dago. Ponpatzeko putzua kontrolatzeko, beharrezkoa da armairu elektriko bat eraikitzea, San Gregorio kaleko 20 zenbakiko parke txikiaren manposteria hormari atxikia jarriko dena. Obrak osatuko dira kable elektrikoak eta ponpatzeko seinaleen transmisioak bideratuta.

de conexión con el colector que baja por Antio Hiribidea. Esta arqueta de conexión se sitúa frente al portal de San Gregorio Kalea 29. Para el control del pozo de bombeo es necesario construir un armario eléctrico que se ubicará adosado al muro de mampostería que delimita el pequeño parque de San Gregorio Kalea 20. Las obras se complementan con las canalizaciones de acometida eléctrica y transmisión de señales del bombeo.

Ondorioz, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, xedatutakoari jarraituz, proiektua onartzen da, baita lanak kontratatzeko espedientea ere, lege horren 159. artikuluak arautako prozedura ireki sinplifikatuaren bidez.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se procede a la aprobación del correspondiente expediente de contratación de las obras mediante procedimiento abierto simplificado regulado en el artículo 159 de dicha Ley.

Exekutatzeko epea 4 hilabete eta erdikoa da, aurrekontua 97.130,25 € eurokoa (gehi BEZa) eta kontratuaren balio zenbatetsia 116.556,30 euro, izan ere, kontuan hartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikuluarekin lotura duen 101.2c) artikulua, kontratua aldatzeko aukera aztertu da, exekuzio aurrekontuaren % 20 gehienez ere.

El plazo de ejecución es de 4 meses, y su presupuesto de ejecución asciende a 97.130,25 € más IVA, siendo el valor estimado del contrato de 116.556,30 euros, toda vez que a los efectos del artículo 101-2c) en relación con el articulo 204 de la Ley 9/2017 de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, se ha estimado una posibilidad de modificación del contrato por un importe máximo de hasta el 20% del presupuesto de ejecución.

Dagokion kontratazio espedientea izapidetu da lanak gauzatzeko. Espedienteak jasotzen ditu proiektuaren zuinketa, kontratua gauzatzeko bete beharreko baldintza administratibo berezien agiria eta gainerako derrigorrezko dokumentuak.

Para la ejecución de las obras se ha instruido el correspondiente expediente de contratación, que comprende el replanteo del proyecto, el pliego de cláusulas administrativas particulares a las que habrá de ajustarse la ejecución del contrato y demás documentos preceptivos.

Aurreko guztiaren arabera, eta xedapen hauek ematen dizkidaten eskumenak erabiliz: 6/2005 Foru Araua, uztailaren 12koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa, 40.5 a) artikulua; eta 22/2016 Foru Dekretua, uztailaren 19koa, Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoa, foru diputatu honek,

En virtud de cuanto antecede, este Diputado Foral, en uso de las facultades conferidas por el artículo 40.5 a) Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno, y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, en relación con el Decreto Foral 22/2016, de 19 de julio, sobre estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas,

**EBAZTEN DU**

**Lehenengo.-** Onartzea ZUMARRAGAN, EIZAGA GAINEKO SANEAMENDUKO PROIEKTUAREN OBREN (2019/18-SA-LS) proiektua, zeinaren lizitazio aurrekontua 97.130,25 eurokoa den, gehi gaur egun ezarri behar den BEZari (% 21) dagozkion 20.397,35 euro (guztira 117.527,60 euro, BEZa barne); lanak gauzatzeko epea lau hilabetekoa da (4).

**RESUELVE**

**Primero.-** Aprobar el proyecto de obras de SANEAMIENTO DEL ALTO DE EIZAGA, EN ZUMARRAGA (2019/18-SA-LS) cuyo presupuesto de licitación asciende a 97.130,25 € más el IVA correspondiente con arreglo al tipo actualmente aplicable (21%) de 20.397,35 euros, total 117.527,60 euros, y con un plazo de ejecución de obra de cuatro meses (4).

**Bigarren.-** Onartzea Baldintza Administratibo Berezien Agiria eta kontratazio espedientea, eta abian Abian jartzea kontratua esleitzeko prozedura ireki erraztu bidez.

**Hirugarren**.- Kontratazio honi dagokion 117.527,60 euroko gastua baimentzea; zenbateko horretan obra proiektua gauzatzeko zenbateko osoa eta dagokion BEZa sartzen da, ondorengo aurrekontuko kontu sailaren kargura: 1.0920.200.662.00.01.2019.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Foru agindu honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, BI HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita .

Hala ere partikularrek, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi, HILABETEKO EPEAN jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

**Segundo.-** Aprobar el pliego de cláusulas administrativas particulares y el expediente de contratación, y disponer la apertura del procedimiento de adjudicación por procedimiento abierto simplificado.

**Tercero.-** Autorizar el gasto correspondiente a dicha contratación por un importe de 117.527,60 euros que comprende el importe total de la ejecución del proyecto de obra y el IVA correspondiente con cargo a la partida presupuestaria 1.0920.200.662.00.01.2019.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastian, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante este Diputado Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

**INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO FORU DIPUTATUAK,**
**EL DIPUTADO FORAL DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS,**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Obras Hidráulicas

**Sin.: / Fdo.: José Ignacio Asensio Bazterra**